

Zestoako Udalaren hizkuntzen erabilera-plana

Egungo egoera
2018-2022 plangintzaldirako helburuak



ZESTOAKO UDALA

1907ko irailaren 22ko Osoko Bilkuraren aktaren zatia

(...) y por tanto se hallan en la necesidad y deber de suplicar a este Ayuntamiento que se digne a anunciar vacante la plaz de Veterinario de esta villa, **exigiendo como a los demás empleados que prestan sus servicios en esta localidad, la condición necesaria e indispensable de poseer el idioma vascongado**, cuya condición se omitió al ser nombrado aquél por el Ayuntamiento que en dicha época existía, y ahora el vecindario que ha de contribuir a su sostenimiento sufriendo los perjuicios consiguientes a causa de no poderse entender con el referido Veterinario en el lenguaje expresado de este país y que por todo lo expuesto suplican a este Ayuntamiento (...)

up se encuentran ingresados en su respetada So-
ciedad y por lo tanto se hallan en la necesidad
y deber de suplicar a este Ayuntamiento que se
digne anunciar vacante la plaza de Veterinario
de esta villa, exigiendo como a los demás emplea-
dos que prestan sus servicios en esta localidad la
condición necesaria e indispensable de poseer el
idioma vascongado, cuya condición se omitió al
ser nombrado aquél por el Ayuntamiento que en
dicha época existía y ahora el vecindario que ha
de contribuir a su sostenimiento sufriendo
los perjuicios consiguientes a causa de no poderse
entender con el referido Veterinario en el lenguaje
expresado de este país y que por todo lo expuesto
suplican a este Ayuntamiento adopte acuerdo
conforme a los deseos que los exponents manifiestan
en el cuerpo de esta instancia. En su vis-



ZESTOAKO UDALA



AURKIBIDEA

Sarrera

Hizkuntzen erabilera-planaren lege-markoa 5

Zestoako Udaleko hizkuntzen erabilera-planerako abiapuntuak 7

Egungo egoera 8

Administrazio atalen sailkapena 8

Plana onartzeko prozedura 9

Helburuak betetzeko konpromisoak betetzeko azpiegitura 10

Hizkuntzen erabilera-plana zehazteko metodologia 11

2018-2022 plangintza aldirako helburu nagusiak, ardatzetan 12

Zerbitzu hizkuntza 12

Erakundearen irudia 12

Herritarrekiko harremanak 13

Lan hizkuntza 14

Barne harremanak 14

Pertsonen kudeaketa 15

Kanpo harremanak 16

Kudeaketa sistema 17

2018 erabilera plana

Zerbitzu hizkuntza	20
Erakundearen irudia	20
Herritarrekiko harremanak	21
Lan hizkuntza	22
Barne harremanak	22
Pertsonen kudeaketa	23
Kanpo harremanak	24
Kudeaketa sistema	25

Eranskinak

- Bikain ebaluazio txostena
- Bikain aurretxostena: Udalak egindako autoebaluazioa



ZESTOAKO UDALA



SARRERA: Hizkuntzen erabilera-planaren lege-markoa

Hizkuntza eskubideen nazioarteko adierazpena

Hizkuntza eskubideen nazioarteko adierazpena UNESCOk, PEN klubak eta beste hainbat GKEk sinatutakoa. Adierazpena Bartzelonan sinatu zen. Munduko hizkuntza eta kultura aniztasuna aldarrikatzen du eta arbuiatzen du behartutako hizkuntza kultura homogeneizazioa.

Hiru eskubide subjektu bereizten ditu: hizkuntza komunitateak, hizkuntza taldeak eta norbanakoak.

- Hizkuntza komunitateak eta hizkuntza taldeen eskubideak: administrazio publikoan, hezkuntzan, onomastikan, komunikabideetan eta IKTetan, eta kulturaren.
- Norbanakoen eskubideak: hizkuntza komunitateko kideztat onartua izateko eta hizkuntza erabiltzeko eremu publikoa zein pribatuan.

Europako Hizkuntza Gutxituen Karta

1992ko azaroaren 5ean Europako Kontseiluak berretsi zuen **Europako Hizkuntza Gutxituen Karta** eta 2001eko abuztuaren 1etik aurrera dago indarrean Espainiar estatuan. Europako erregio hizkuntzen eta hizkuntza gutxiagotuen babesa ezartzen du.

Estatu sinatzaileek beraien eremuan dauden erregio hizkuntzak eta hizkuntza gutxiagotuak errespetatzeko, babesteko, bultzatzeko eta erabiltzeko egon daitezkeen oztopoak eta zailtasunak deuseztatzeko konpromisoa hartzen dute

Udal legea

2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

“legeak toki-harremanetan kultura- eta hizkuntza-eredu propio baten alde egin duen aukera garbian ere, apustu sendoa egiten baitu euskararen iraunarazpen, finkapen eta garapenaren alde, amarez eta euskal toki-administrazioa benetan euskalduna izan ahal dadin, horrek berarekin dakarrekin guztiarekin, hala nola den euskara laneko ohiko hizkuntza izan ahal izatea, euskara jakitea mugatu gabe, askotan gertatzen denez, tokiko enplegu publikora iristeko eskakizun formal huts izatera. Horregatik, toki-administrazioak etsenplu eta gidari izan behar du euskara erabat berreskuratzearen arloan, eta horretarako beharrezkoa da administrazio horrek apustu argi bat egitea bere jarduna gero eta gehiago euskalduntzen joateko.”

179/2019 Dekretua

Azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa



ZESTOAKO UDALA



Euskararen Legea	<p>EAEko Euskararen Erabilpena Arauzkotezko Oinarrizko Legeak, azaroaren 24ko 10/1982 zenbakidunak, herritarren hizkuntz eskubideak aitortu eta herri-aginteez hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu.</p> <p>Legearen 14. atalak herritarrei administrazioarekiko harremanetan aitortutako hizkuntza eskubideak bermatzeko, administrazioaren zerbitzupeko pertsonala arian-arian euskalduntzea aurreikusten du, eta baita administrazioetako lanpostu-zerrendetan bi hizkuntza ofizialak jakitea derrigorrezkoa duten lanpostuak finkatu beharra ere.</p>
Funtzio Publikoaren Legea	<p>Euskal Autonomi Erkidegoko Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen V. titulua eta hori garatzeko Eusko Jaurlaritzak herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko onartutako erregelamenduko arauak euskararen ofizialtasunak funtzio publikoaren eremuan izan beharreko isla ez ezik herri administrazioetako euskararen erabileraren normalkuntza prozesuaren oinarri ere badira.</p> <p>Horri loturiko lehen plangintza aldia (1990-1995) euskal herri administrazioetako euskararen erabileraren normalkuntza-prozesuak izan zuen helburu nagusia administrazioaren giza bitartekoak arian-arian euskaraz ere jarduteko gaitzea izan zen.</p>
UEMA	<p>Horrez gain, Euskal Herriaren berezko hizkuntza sustatzeko asmoz, Zestoako Udala partaide den Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA), berriz, bere jardunbidea arautzen duten estatutuetan dio bere helburu orokorra dela, besteak beste, udal partaideen administrazioetako barne jardueran eta udalerrietako arlo guztietan euskararen erabilera ahalbideratzea eta bermatzea.</p> <p>Horiek horrela, UEMAk euskararen erabilera normalizatzeko plangintza abiatzea erabaki zuen 1995ean udal partaideen jarduera eremuan, eta lehen azterketak egin zituen hurrengo urtean.</p>
86/1997 Dekretua	<p>Bigarren plangintza aldia araupetzen duen Euskal Autonomi Erkidegoko 86/1997 Dekretuak, apirilaren 15ekoak (dekretuak indarrean jarraitzen du eta V. plangintza aldiak 2013ko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31 arte iraungo du), elementu berriak erantsi zizkien lehenengo plangintza aldiko arauak.</p> <p>86/1997 dekretuak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri die euskal herri-administrazio guztiei. Gainera, plan horiek jaso beharreko gutxienezko osagaiak adierazten dira aipatu dekretuaren 18. atalean.</p>
EP Zestoan	<p>Udalak 1994ko urtarrilaren 25ean onartu zuen euskararen udal ordenantza. Lehenengo erabilera plana 2000n onartu zuen. Orduetik hona, plangintza aldi plangintza aldi erabilera planak onartu eta martxan izan ditu Udalak.</p>



ZESTOAKO UDALA



SARRERA: Zestoako Udaleko hizkuntzen erabilera-planerako abiapuntuak

Herritarren hizkuntza eskubideak	Zestoan herritar orok du berak aukeratutako hizkuntza erabiltzeko eskubidea. Udal administrazioa aitortu egiten die herritarrei eta bermatu egingo die administrazioarekiko harremanetan hizkuntza ofizialetako edozeinetan (euskaraz edo gaztelaniaz) jarduteko eskubidea.
Zestoako berezko hizkuntza	Euskara da Zestoa herriaren berezko hizkuntza. 2016ko datuen arabera, biztanleen %81,48 euskalduna da, eta %6,97 ia-euskaduna (plangintza aldi honetarako dagokion DI %84,96 da). Herriko erdaldunen artean, euskaldun pasiboaren kopurua oso altua da (hitz egin ez baina nahiko ongi ulertzen dutenak). Herri administrazioak herriaren isla izan behar du.
Zestoa, euskararen arnagunea	Zestoa euskararen arnagunea da. Euskaldunentzat, bertan lasai eta eroso euskaraz bizi ahal direlako. Eta euskararentzat berarentzat, euskara bizi-bizirik dagoelako eta bertan naturaltasunez sortu eta garatzen delako. Aurrerantzean ere horrela izango dela ziurtatzeko, hizkuntza babesgunez joko du Zestoako Udalak eta zaindu, indartu eta bultzatzeko behar beste neurri hartuko ditu.
Administrazioaren eraginkortasuna eta alferreko burokrasia eza	Zestoako Udala herri-administrazio txikia da, langile gutxi ditu. Ele biz funtzionatu behar izateak lan-kargak sortzen dizkie langileei. Hori dela eta, aipatu eskubideei kalte egin gabe, eraginkortasun eta ekonomia printzipioak aplikatuko ditu Udalak eta horrela, beharrezkoa denean ele biz burutuko ditu lan-jardunak; eta, beharrezkoa ez denean, herriaren eta administrazioaren berezko hizkuntza erabiliko du.

EGUNGO EGOERA

2018 urtean urrezko Bikain agiria jaso du Zestoako Udalak. Horren aurretxostena eta ebaluazio txostena dira plan honen diagnostikoa eta abiapuntuak. (Eranskinean txosten osoak)


ADMINISTRAZIO ATALEN SAILKAPENA

Zestoako Udal administrazioa, txikia da eta atal gehienak langile bakarrekoak. Horregatik, askotan, zerbitzuek izaera bat baino gehiago dute. Era berean, esan dezakegu atal guztiak dira neurri batean jendaurrekoak.

Lan hizkuntzari dagokionez, denak dira atal elebidunak. Hurrengo taulan, egoera laburtuko dugu.

		Atalen IZAERA				SAILKAPENA	
		Jendaurrekoa	Gizarte izaerakoa	Atal orokorra	Atal berezia	Euskalduna	Elebiduna
Idazkaritza							
	Harrera bulegoa						
Teknikoak							
	Hirigintza						
	Kultura						
	Euskara						
	Ingurumena eta Baserriak						
	Gazteria						
	Kirola						
	Gizartekintza						
	Etkez etxeko langileak						
	Liburutegia						
Zerbitzuak							
	Brigada						
	Garbitzailak						
	Udaltzainak						

2.- Plana onartzeko prozedura





HELBURUEI BEGIRAKO KONPROMISOAK BETETZEKO AZPIEGITURA

Txosten honetan zehaztuko diren helburuei begira, urteko kudeaketa planean hartu beharreko konpromisoak zein diren aztertu eta zehaztuko da eta, era berean, konpromiso horiek ekarriko dituzten neurriak nork eta nola bete/betearaziko dituen jasoko da.

Jarraipen batzordea

Euskara eta Kultura Batzordeak egingo du urteko planaren jarraipena.

Plangintzaren jarraipena egingo diren bileretan, aurrekoei honako hauek ere gehituko zaizkie:

- UEMAKo hizkuntz normalizatzailea
- Udalak ongi baderitzo, langileen ordezkariak

Horrenbestez, zeregin hauek bideratuko ditu Jarraipen batzordeak:

- Talde eragilea izango da.
- Ardurak banatuko ditu, txostenak onartutako helburuei begirako konpromisoak/neurriak betetzeko.
- Konpromiso/neurri bakoitza betetzeko edo/eta betearazteko arduradunak izendatuko ditu. Kultura Batzordeak ontzat jo ondoren, Udalbatzak edo Gobernu Batzordeak onartu egingo du.



ZESTOAKO UDALA



HIZKUNTZEN ERABILERA-PLANA ZEHAZTEKO METODOLOGIA

Txosten honetan, egoera baloratzeko eta aurrera begirako plana zehazteko, HPSk Hizketa aplikazioaren arabera egituratuko da informazioa:

1. Zerbitzu hizkuntza
 1. Erakundearen irudia
 2. Herritarrekiko harremanak
2. Lan hizkuntza
 1. Barne harremanak
 2. Pertsonen kudeaketa
 3. Kanpo harremanak
 4. Kudeaketa sistema

Informazioren
antolaketa

Hurrengo orrietan, laburtuko da aipatu alor bakoitzeko:

- Lortu nahi den normalizazio maila
- Egungo egoera
- 2018-2022 plangintza aldian landu beharrekoak

Hurrengo orrietan, aipatu lau arloen egoera aztertu eta horiek lantzeko helburu orokorrak zehaztuko ditugu. Helburu horiek lortzeko neurrien sekuentzia urtez urteko kudeaketa planetan jasoko da.

2018-2022 PLANGINTZAREN HELBURU NAGUSIAK, ardatzetan

ZERBITZU HIZKUNTZA: 1- Erakundearen irudia

Zestoa herri euskalduna da eta euskara, Zestoa herriaren identitate-ezaugarrietako bat. Udal administrazioak herria bezain euskalduna izango da.

Lortu nahi den normalizazio maila	Indarguneak	2018-2022 plangintzan landu beharrekoak
<p>1.1- Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak</p> <p>Irudi korporatibo euskalduna izango du Udalak: Beti ziurtatuko da herritar guztiei iritsiko zaiela informazio osoa inolako oztoporik gabe</p> <p>1.2- Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak</p> <p>Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak euskaraz egingo ditu Udalak, beti ere ziurtatuta, herritar guztiei iritsiko zaiela informazio osoa inolako oztoporik gabe</p> <p>1.3- Ingurune digitala</p> <p>Euskaraz irekiko dira eta euskaraz nabigatzen duenari informazio guztia bistaratuko zaio. Edukiak beste hizkuntza batean ere agertzen badira, deskargatzeko dokumentuak euskaraz ere egongo dira.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • langileen hizkuntza gaitasuna eta erabilera maila • Langileek barneratua izatea gutxienez euskaraz egon behar duela • Ordezkeri politikoen hizkuntza gaitasuna • Onartutako HI 	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Udalaren eta bereziki beste enpresa batzuek jarritako errotulazioaren jarraipena.</i> • <i>Udal eraikinak erabiltzen dituzten erakundeek errotulazioek udalaren irizpideak betetzea (Musika Eskola...)</i> • <i>Bikain agiria erabiltzea</i> • <i>Agerraldietan Udalaren hizkuntza irizpideak betetzea.</i> • <i>Udala parte aktibo izatea (eragile, sustatzaile...) euskara sustatzeko egitasmoetan</i>



ZESTOAKO UDALA



ZERBITZU HIZKUNTZA: 2- Herritarrekiko harremanak

Herritar guztien eta bakoitzaren hizkuntza eskubideak izango dira udal administrazioaren zerbitzu hizkuntzaren muga eta helburu

Lortu nahi den normalizazio maila	Indarguneak	2018-2022 plangintzan landu beharrekoak
-----------------------------------	-------------	---

2.1- Herritarrekiko idatzizko harremanak

Zestoar guztiek eta bakoitzak aukeratutako hizkuntzan burutu ahal izatea tramitazio osoa.

Udal agiriak estandarizatzea, eta agiri berriak sortzeko 'estilo liburua' definitzea.

2.2- Herritarrekiko ahozko harremanak

Lehenengo hitza beti euskaraz izango da, ondoren herritarrak aukeratutako hizkuntzan jarraituko da.

Orain arte harremanak gazteleraz izan dituzten euskaldunak animatzea udal administrazioarekiko harremanak ere euskaraz izatera.

- Herritarren hizkuntza gaitasuna eta erabilera maila.
- Langileen hizkuntza gaitasuna
- Onartutako HI

- *Agirien estandarizazioa*
- *Udal 'estilo-liburua'*
- *Hizkuntza kalitatea lantzea*



ZESTOAKO UDALA



UDALAREN LAN HIZKUNTZA: 3- Barne harremanak

Komunikazioan eta lan-tresnetan euskara ohikotasunez erabiliko dute langileek.

Lortu nahi den normalizazio maila	Indarguneak	2018-2022 plangintzan landu beharrekoak
3.1- Hizkuntza paisaia		
3.2- Idatzizko komunikazio bertikala eta horizontala	<ul style="list-style-type: none"> Langileen hizkuntza gaitasuna eta erabilera maila 	<ul style="list-style-type: none"> <i>Oraindik gazteleraz dauden aplikazioak euskaratzea edo euskarazko baliokidea instalatzea</i>
3.3- Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala	<ul style="list-style-type: none"> Onartutako HI 	
3.4- Baliabide informatikoak	<ul style="list-style-type: none"> Langileen erabilera ohiturak. 	<ul style="list-style-type: none"> <i>Ahozko harreman ez-formal guztiak euskaraz izatea</i>
Aurreko guztiak euskaraz izango dira.		



ZESTOAKO UDALA



UDALAREN LAN HIZKUNTZA: 4- Pertsonen kudeaketa

Pertsonen kudeaketan eta prestakuntzan euskararen erabilera indartzea.

Lortu nahi den normalizazio maila	Indarguneak	2018-2022 plangintzan landu beharrekoak
4.1- Pertsonen kudeaketa	<ul style="list-style-type: none"> • Langileen hizkuntza gaitasuna eta erabilera maila 	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Langile berriak hautatzean neurriak ezartzea ziurtatzeko lanerako behar besteko gaitasuna dutela</i>
4.2- Laneko prestakuntza	<ul style="list-style-type: none"> • Onartutako HI • Langileen erabilera ohiturak. 	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Langile berrien harrera protokoloa zehaztea</i> • <i>Udala eragile izatea langileen prestakuntza antolatzen duten erakundeek (IVAP, IZFE, EUDEL, GFA, EJ...) eskaintza osoa euskaraz ere izan dezaten.</i>



ZESTOAKO UDALA



UDALAREN LAN HIZKUNTZA: 5- Kanpo harremanak

Herria bezalakoa izan behar du Udalak. Zestoa herria euskaraz bizi da, Zestoako Udalak, euskaraz funtzionatuko du.

Lortu nahi den normalizazio maila	Indarguneak	2018-2022 plangintzan landu beharrekoak
<p>5.1- Administrazioa: EAEko administrazioekiko harreman oro euskaraz izatea</p> <p>5.2- Erakunde pribatuei udalaren hizkuntza irizpideen berri ematea eta gonbidatzea elkarren arteko harremanetarako euskara lehenestea.</p> <p>5.3- Bestelako harremanak: aliatuei, taldeko enpresei, erakunde kolaboratzaileei... ere, udalaren hizkuntza irizpideen berri ematea eta gonbidatzea elkarren arteko harremanetarako euskara lehenestera.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Langileen hizkuntza gaitasuna eta erabilera maila • Onartutako HI • Langileen erabilera ohiturak. • Zestoako elkarte, erakunde eta enpresen hizkuntza ohiturak 	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Laneko kanpo harremanetan euskaraz aritzera gonbidatzea edo eskatzea dagokion administrazio edo erakundeari.</i> • <i>Beste erakundea herrikoa denean (enpresa edo elkarte), laguntza teknikoa eskainiko zaie idatzi ereduak sortu eta egokitzeke.</i>



ZESTOAKO UDALA



UDALAREN LAN HIZKUNTZA: 6- Kudeaketa sistema

Euskararen kudeaketa aurreratua ahalbidetuko du Zestoako Udalak

Lortu nahi den normalizazio maila	Indarguneak	2018-2022 plangintzan landu beharrekoak
<p>6.1- Estrategia: hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea</p> <p>6.2- Herritarrak eta produktua edo zerbitzua: hizkuntzen kudeaketa herritarrekiko harremanen kudeaketan eta produktuen edo zerbitzuen garapenaren kudeaketan integratzea</p> <p>6.3- Pertsonak: hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Onartutako HI 	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Kudeaketa sistema orokorrak, idatzita egon zein ez, euskararen kudeaketa jasoko du</i> • <i>Udalak euskararekiko duen konpromisoa ikusaraztea</i> • <i>Langile zein ordezkari politiko berrientzat harrera gidak garatzea eta bertan jasotzea hizkuntza kudeaketaren ardura langile guztien ardura dela.</i> • <i>Udaleko jardueran gerta daitezkeen hizkuntza eskubideen urraketa edota herritarren kexak eta eskaera oro aztertu, ebatzi eta jakinaraztea.</i>



Zestoako Udalaren hizkuntzen erabilera-plana

2020ko kudeaketa plana

ZERBITZU HIZKUNTZA: 1- Erakundearen irudia

Helburua	Neurriak	Eragindako langileak
Udal erakinak erabiltzen dituzten entitateek bermatzea Udalaren hizkuntza irizpideak haien errotulazioan.	<ul style="list-style-type: none"> • Errotulazioen araudia eguneratzea eta argitaratzea 	HNT Idazkaria
Udala parte aktibo izatea (eragile, sustatzaile...) euskara sustatzeko egitasmoetan.	<ul style="list-style-type: none"> • Eragindakoei jakinaraztea eta aldaketak egiteko laguntza eskaintzea 	HNT Kultura, Kirol eta Gazteria teknikariak
Bikain agiria erabiltzea	<ul style="list-style-type: none"> • Betetze-mailaren jarraipena egitea • Zestoako Udalak parte hartzea Euskaraldian, bai ordezkari politikoek, baita langileek ere. • Bikain agiria lortu izana zabaltzea • Bikain ikurra irudi korporatibora integratzea • Irudi korporatiboa erabiltzeko irizpideak zehaztea, udal estilo-liburua garatzean 	HNT Kultura, Kirol eta Gazteria teknikariak HNT Udal teknikariak



ZESTOAKO UDALA



ZERBITZU HIZKUNTZA: 2- Herritarrekiko harremanak

Helburua	Neurriak	Eragindako langileak
2.1- Herritarrekiko idatzizko harremanetan herritarrek aukeratutako hizkuntzan tramitazio osoa burutu ahal izatea	<ul style="list-style-type: none"> Jarraipen sistema arina eta erabilgarria sortzea 	<p>HNT</p> <p>Udal teknikariak</p>
2.2- Lehenengo hitza beti euskaraz izatea.	<ul style="list-style-type: none"> Udal ordezkariak eta langileak beti "ahobizi" jokatzeari 	<p>Udal ordezkariak eta langileak</p>
Erantzungailu automatikoen mezuak estandarizatzea	<ul style="list-style-type: none"> Udalarenak diren telefono guztietan, ahozko mezu estandarizatua grabatzea. 	<p>HNT</p> <p>udal ordezkariak</p>



ZESTOAKO UDALA



LAN HIZKUNTZA: 3- Barne harremanak

Helburua	Neurriak	Eragindako langileak
<p>Ahozko harreman ez-formal guztiak euskaraz izatea, langileen artekoak zein langile eta ordezkari politikoen artekoa.</p> <p>Oraindik gazteleraz dauden aplikazioak euskaratzea edo euskarazko baliokidea instalatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Udal langileek eta ordezkari politikoek Euskaraldian parte hartzea. • Aplikazioen euskarazko bertsioak edota baliokideak instalatzea. 	<p>Udal ordezkariak eta langileak</p> <p>HNT udal teknikariak</p>



ZESTOAKO UDALA



LAN HIZKUNTZA: 4- Pertsonen kudeaketa

Helburua	Neurriak	Eragindako langileak
<p>4.1- Pertsonen kudeaketa</p> <p>Langile berriak hautatzean neurriak ezartzea ziurtatzeko lanerako behar besteko gaitasuna dutela.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Hautaketa prozesuetako ariketa praktikoan, ariketa “erreal” bat txertatzea. Hots, lanean sortu beharreko dokumentu bat sortzeko eskatzea. 	<p>HNT</p> <p>Hautaketako epaimahaia</p>
<p>4.2- Laneko prestakuntza</p> <p>Udala eragile izatea langileen prestakuntza antolatzen dituzten erakundeei eskaintza osoa euskaraz ere izan dezaten.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Eskaintzaren jarraipena egitea eta langileen interesekoak diren ikastaroak euskaraz ere izatea eskatzea 	<p>HNT</p>



ZESTOAKO UDALA



LAN HIZKUNTZA: 5- Kanpo harremanak

Helburua	Neurriak	Eragindako langileak
<p>5.1- Administrazioa</p> <p>EAEko administrazioekiko harreman oro euskaraz izatea</p>	<ul style="list-style-type: none"> Jarraipen sistema eta, dagokionean, neurri zuzentzaileak 	<p>HNT</p> <p>Hautaketako epaimahaia</p>
<p>5.2- Erakunde pribatuak</p> <p>Erakunde pribatuei udalaren hizkuntza irizpideen berri ematea eta gonbidatzea elkarren arteko harremanetarako euskara lehenestera.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Tartean kontratazio bat dagoenean, kontratuko baldintza orriek jasoko dituzte enpresak bete beharreko hizkuntza irizpideak. Tartean diru-laguntza deialdia dagoenean, deialdiak jasoko ditu onuradunak bete beharreko hizkuntza irizpideak. Bestelako kasuetan, Udalak harremanak euskaraz izatea eskatuko du. 	<p>Udal teknikariak</p> <p>Idazkaria</p> <p>Alkatea</p>



ZESTOAKO UDALA



LAN HIZKUNTZA: 6- Kudeaketa sistema

Helburua	Neurriak	Eragindako langileak
<p>6.1- Kudeaketa sistema orokorra</p> <p>Kudeaketa sisteman, idatzita zein ez, euskararen kudeaketa jasotzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • HAPOren garapenaren jarraipen zuzena eta estua egitea • Egitasmo orori ELE egitea 	<p>HAPO garatzen duen enpresak</p> <p>Idazkaritza</p> <p>Jarraipen batzordea</p>
<p>6.2- Herritarrak eta zerbitzua</p> <p>Udaleko jardueran gerta daitezkeen hizkuntza eskubideen urraketak edota herritarren kexak eta eskaera oro aztertu, ebatzi eta jakinaraztea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza urraketan eta hizkuntzaren gaineko herritarren kexen eta eskaeren erregistroa sortzea eta argitaratzea 	<p>HNT</p>
<p>6.3- Pertsonen kudeaketa</p> <p>Langile zein ordezkari politiko berrientzat harrera gidak garatzea eta bertan jasotzea hizkuntza kudeaketaren ardura langile guztien ardura dela.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Harrera gida sortzea 	<p>Udal teknikariak</p> <p>Idazkaria</p> <p>Alkatea</p>